




Beñat Gaztelumendi
Bertsolaria

Hitzez

Badakit ez didazula sine-
tsiko, baina nik hemen
ikasi nuen, frontoi hone-
tan, futbol zelai honetan,
plaza honetan ikasi nuen
eta badakit bekainak al-
txatuko dituzula eta galdera ikur bat
marraztuko dizutela zimurrek kope-
tan baina hemen ikasi nuen hizke-
tan; hitzak lehenagotik nekartzan pol-
tsikoetan gordeta, eta hona etorri eta
poltsikoak arakatzen igaro nituen egu-
nak, asteak, hizketan ikasteko mutua
izatea da batzuetan lehen urratsa, eta
ondoren helduagoen ahots sendoak,
esaldi ziurrak, galdera ikurrik gabeko
baieztapenak kontatzeari ekin nion,
kopiak tokia emateko esperantzan ika-
si nuen eguraldiaz hizketan eta egin ez
nituen parrandez igo ez nituen men-
diez irabazi ez nituen partidez mintza-
tzen ikasi nuen hizketan eta badakit,
nahastuta nabilela esango didazu, ea
non dauden aditz taulak eta gramatika
eta sintaxia eta liburu zabaldu berrien
usaina eta egia da, nik ere bizi izan
nuen silaba bakoitza paragrafo bat bai-
no luzeagoa zen garai hura; ni ere tra-
batu nintzen “r”-an, egin nuen estro-
pezu “s”-arekin eta “a” bakoitzarekin
altxatzea lortu nuen berriz, baina hori
ez da hizketan ikastea, hitzak ikastea
izango da asko jota, eta hitzen ondo-
ren esaldiak ikasi genituen buruz,
ipuinak bertsoak kantuak txisteak eta
ohartzerako esaldi horietan sartzen ez
ziren hitzak ere agertu ziren gure hiz-
tegi partikularretan, hizkuntza be-
rriak, eta mintzo eta hizkuntza ezber-
dinak ikasi zituen gure ahotsak,
sentimenduak tolestatzeko mundu be-
rriak aurkitu genituen eta bat gurea
zela esaten ziguten arren nola izango
zen bakarra gurea?, bestea ere gure
baitan zegoen; berandu irakatsi zizki-
guten eleaniztasun eta diglosia, gure
baitan baikinena euskaldun eta erdal-
dun, batzuetan batetik bestetik baino
gehiago eta besteetan bestetik batetik
baino gehiago baina beti biak, hizkun-
tzak gramatikatik adina du dramatika-
tik eta poltsiko bakoitzean hitzak de-
sordenatuta iritsi nintzen plaza
honetara, auskalo noizko festetan, eta
besteei entzunez ikasi nituen istorio-

ak, ikasi nituen errimak eta doinuak
eta beste guztiak eta amildegi bat dago
kanpoko eta barruko diglosien artean,
akaso pentsatzearen pentsatzez pen-
tsatu gabe hitz egitera iritsi naizelako,
baina hasieran ez neukan mikrofono-
rik eta isilik ikasi nuen ahotsa altxa-
tzen; esaten dudanak esaten nau eta,
batzuetan, esaten ez dudanak ere bai,
eta horregatik isiltasunari ikara hau
arnasestuka hitz egin behar hau hizke-
tan jakiteak ez duelako esateko zerbait
daukadanik esan nahi, batzuetan nik
nahi dudana diote hitzek eta hitzek
nahi dutena diot besteetan loreontziak
ere margotutako plaza honetan, hitzak
ere porlanezkoak diren plaza honetan
beti dago zerbait garrantzitsuegia esa-
teko edo isiltzeko, nik ere pankartez
eta barrakez inguratuta ikasi nuen hiz-
ketan, herri honetan beste hainbestek
bezala ikasi nuen hitza ematen eta hi-
tza hartzen eta hitzartzen ere bai ba-

tzuetan, hitzekoa baino gehiago naiz
hitzezkoa eta horregatik nago hemen,
frontoi honen, futbol zelai honen, pla-
za honen erdian, eta munduko hizkun-
tza zaharrenetako batean mintzo nai-
zela diote baina ez dut uste, ez dut
sinesten, hitzak oraintxe atera zaizkit
eztarritik eta nire arnas beroa iritsi
zait sudurzuloetara eta hitz egiten du-
dan aldiro berritzen da hitz egiten du-
nau hizkuntza ere hemen, plaza ho-
nen erdian; hitza hartzen dudanero
norbait isilik geratzen da hemen eta
nik hitzak baino ez dauzkat, hitzak hi-
tzak hitzak eta hitzak arnasestuen la-
birintoetan gora eta behera elkarrekin
topo egin nahi eta ezinean, tarteka el-
kar harrapatuz, tarteka elkar janez, tar-
teka elkarren esan nahiak aldatuz eta,
ez dakit, agian iritsiko zitzaidan isiltze-
ko garaia, porlanezko plaza honetan
lapurtu ditudan hitz horiek denak en-
tzuteko unea. •



Porlanezko plaza honetan ikasi nuen hizketan.

Gorka RUBIO | ARGAZKI PRESS